

UDALBATZA OSOA

Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Eguna: 2017ko apirilaren 12a, asteazkena.

2017ko maiatzaren 10ean akta onesteko bilkuran egindako oharra biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate udalburu jauna buru dutela, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), ez bertaratzeko arrazoiak eman ditu; Luis Felipe Campos Latre (PP), ez bertaratzeko arrazoiak eman ditu lana dela-eta; Diana Rubio Lafuente (PP) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion), ez bertaratzeko arrazoiak eman ditu lana dela-eta.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, aldez aurretik eta arauzko publizitatearekin. Honako hau da

Aztergaien zerrenda

1. Onestea 2017ko martxoaren 8an eginiko ohiko bilkuraren akta.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

3. Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.

3.1. Autokarabanetarako eremuko arauak.

3.2. Eh Bildu Oion taldearen "Guernica Gernikara" mozioa eta EAJ-PNVren zuzenketa.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.

5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.

5.1. Eh Bildu Oion taldearen mozioa gizarte-zerbitzuen diagnostikoari buruz.

6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.

Azken puntua) Eskaerak eta galderak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2017ko martxoaren 8an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei.

Ez da oharrik egin.

Hau erabaki da:

1) Onestea 2017ko martxoaren 8an eginiko bilkuraren akta.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva

Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2017ko 43/17tik 76/17ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

3.1 Autokarabanetarako eremua arautzen duen ordenantzaren hasieran onestea.

Aurrekariak:

1. Trafikoko Zuzendaritza NAgusiko 08/ V / 74 instrukzioa. Nahitaez bete beharreko dokumentua, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak emana autokarabanek aparkatzeari buruz.
2. Oiongo autokarabanen eremua arautzeko ordenantzaren testua.
3. Espedientearen erreferentzia: OrdAduar1704.
4. Honako hau aplikatu behar da: urriaren 1eko 39/2015 Legearen (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa) VI. titulua (39/2015 Legea).

Hau erabaki da:

1. Hasieran onestea autokarabanen eremua arautzeko ordenantza.
2. Ordenantza hori jendaurrean jartzea 30 (hogeita hamar) egunez; hala, iragarkia jarriko da Udalaren iragarki-taulan eta ALHAOn. Jendaurrean dagoen bitartean, interesdunek udal-bulegoetan

eskuragarri dagoen espedienteaz aztertu ahalko dute, eta egoki deritzen erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahalko dituzte. Erreklamaziorik jartzen ez bada, ordura arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko erabaki bilakatuko da.

3. Araudiak eragiten dien jarduera-esparruko bizilagunen elkarteei banan-banan jakinaraztea.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

3.2 Eh Bildu Oion taldearen "Guernica Gernikara" mozioa eta EAJ-PNVren zuzenketa.

Villanueva jaunak EhBildu Oion taldearen "Guernica Gernikara" mozioa irakurri du (euskaraz eta gaztelaniaz transkribatu da).

“Guernica Gernikara mozioa”

“1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak “Guernica” margolana sortu zuen. Lan honek, egun batzuk lehenago, Euskal Herritarren gune kuttun eta esanguratsuenetakoa zen Gernikak Condor Legio naziak Francoren agindupean jasandako bonbardaketa eta sarraskia salatzen du. Beraz, aurten 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik, baita honen aurkako garraisi artistikoa sortu zenetik ere. Urteurren hau, Gernika zein Euskal Herritarren beste eskaera eta garraisi bat zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu:

“Guernica” margolana Gernikan kokatu dadila behin betikoz.

Margolana 1937an sortu zen eta Parisko Erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrez geroztik mundu guztian ezaguna bilakatu da, giza eskubideen zapalkuntza, gerraren eta herritarren aurkako jazarpena ozenki salatzen duelako.

Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernika eta bere historiari lotua ez baldin ba dago, hura izan bait zen margolari ezaguna gertatuaren izugarrikeria salatzerantz eramanez. Horren jakitun, Gernika eta Euskal Herriak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du, aipatutako margolana Madrilgo Reina Sofia Museoan egon ordez, Gernikan bertan egotea dela egokia.

Behin baina gehiagotan eskari hau luzatu arren, Madrilgo Gobernu ezberdinek, bereziki garraio eta mantentze arrazoi teknikoak aipatuz, “Guernica” bere etxera ekartzera ukatu egin izan dira. Gaur egun, garraio eta mantenurako beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute Euskal instituzioek eta ez da sinesgarria egiten argudiategi hori mahai gaineratzea. Beste behin ere, Madrileko Gobernuak dituen interes ekonomiko zein politikoak daude “Guernica” Euskal Herrira ez ekartzeko arrazoi nagusien artean.

Sufrimendu guztien aitortza egingo duen memoria historiko bat eraikitzea ezinbestekoa den honetan, beste behin ere, margolan honek, bonbardaketa jasan behar izan zuen Gernika herrian kokatuta, bere indarra eta salaketaren sakontasuna biderkatu egiten duela aldarrikatu nahi dugu. Eta ezinbestean “Guernica”-k Gernikan egon behar duela. Ondorioz, honako mozio hau aurkezten dugu Oiongo Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.

1. Udal honek, Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sarraskian oinarritutako Picasso-ren “Guernica” margolanaren

kokapenik egokiena, Gernika dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, “Guernica” Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio Espainiko Gobernuari eta Kultura Ministerioari.

2. Udal honek, Eusko Jaurlaritzari dei egiten dio, Picassoren Guernica margolana Gernikan kokatu ahal izateko beharrezkoak diren urrats instituzionalak eman ditzan. Baita ere, margolan hori Gernikan kokatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta egokitzapen lanetan laguntzeko ere.
3. Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaldu nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.
4. Udal honek, erabaki honen berri emango die, Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernua eta Kultura Ministerioari.

Moción el “Guernica” a Gernika

Entre mayo y junio de 1937, el pintor y artista Pablo Picasso pintó el conocido “Guernica”. El cuadro denuncia el bombardeo y exterminio sufridos unos días antes por el pueblo Gernika, uno de los lugares más queridos y representativos para la ciudadanía vasca, a manos de la Legión Cóndor nazi, siguiendo órdenes de Franco. Así pues, este año se cumplen 80 años del bombardeo, y también de la creación de este grito artístico. En nuestra opinión, el presente aniversario ofrece una inmejorable oportunidad de expresar otra reivindicación de la ciudadanía vasca, y de hacerlo alto y claro: que el “Guernica” venga a Gernika definitivamente.

La pintura vio la luz en 1937, y fue expuesta en la Exposición Universal de París. Desde entonces se ha hecho famosa a nivel mundial, por constituir una denuncia expresa de la vulneración de los derechos humanos, de la guerra y de la persecución contra la ciudadanía.

La obra en cuestión no tiene sentido si no se relaciona con Gernika y con su historia, que estuvieron en el origen de la denuncia de lo sucedido por parte del famoso pintor. Sabedores de ello, Gernika y Euskal Herria han reivindicado en más de una ocasión que el mencionado cuadro debería estar en Gernika, y no en el Museo Reina Sofía de Madrid.

Pese a haberles remitido una y otra vez una solicitud en este sentido, los diferentes Gobiernos de Madrid se han negado repetidamente a traer el “Guernica” a su casa, alegando fundamentalmente razones técnicas relativas al transporte y al mantenimiento. Hoy en día las instituciones vascas no tienen ningún problema en cumplir todas las condiciones necesarias para el transporte y mantenimiento de la obra, por lo que no tiene ningún sentido seguir defendiendo ese argumento. Una vez más, los intereses económicos y políticos del Gobierno de Madrid, entre otras razones, impiden que el “Guernica” viaje a Euskal Herria.

En este momento en que se hace imprescindible la construcción de una memoria histórica que reconozca todos los sufrimientos, una vez más queremos reivindicar que el hecho de ubicar el cuadro en Gernika, la localidad que sufrió el bombardeo, multiplica la fuerza y el calado de la denuncia. Por lo que, indiscutiblemente, el “Guernica” debe estar en Gernika. Así pues, presentamos esta moción en el Pleno Municipal de Oion para su debate y aprobación.

1. Este ayuntamiento quiere expresar que Gernika es la mejor

ubicación para el “Guernica” de Picasso, ya que la obra parte de la masacre sufrida en 1937 por el pueblo de Gernika. Este Ayuntamiento considera fundamental fusionar el acontecimiento histórico, la obra de arte y la localidad. En base a lo cual, solicita formalmente al Gobierno Español y al Ministerio de Cultura el traslado del “Guernica” a Gernika.

2. Este ayuntamiento emplaza al Gobierno Vasco a dar los pasos institucionales necesarios que permitan ubicar el “Guernica” de Picasso en Gernika. Así como a facilitar las labores de adecuación e infraestructuras necesarias para instalar la pintura en Gernika.
3. Este Ayuntamiento se identifica con la denuncia que Picasso quiso difundir mundialmente a través de su pintura, esto es con la denuncia expresa de la guerra y del genocidio, y de las vulneraciones contra los derechos humanos y contra los pueblos.
4. Este Ayuntamiento comunicará el presente acuerdo al Gobierno Vasco, al Gobierno de España y al Ministerio de Cultura.

Alkateak zuzenketa irakurri du:

Gamarra jauna: Abstenitu egingo gara mozioan eta zuzenketan. Koadroa bonbardaketa baino lehen agindu zuten eta itxura denez, ordainketa aurreratu egin zuten aduanetako funtzionarioen eskutik...

Villanueva Gutiérrez jauna: EhBildu Oion taldeak mozioa aurkeztu izan ez balu, gobernu-taldeak ez zukeen zuzenketa aurkeztuko. Gure mozioa zuzenketa baino osoagoa iruditzen zaigun; dena dela, abstenitu egingo gara. Alderdi sozialistako kideari dokumentatzeko eskatu nahi diot...

Alkate jauna: Gogoan izan PNV-EAJk Eusko Jaurlaritzatik eta Kongresutik askotan eskatu diola Espainiako gobernuari koadroa Euskadira etortzea.

EAJ-PNV taldeak EhBildu Oion taldearen "Guernica Gernikara" mozioari eginiko zuzenketa bozkatu da.

Aldeko botoak: 4 (lau); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

Abstentzioak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Hau erabaki da:

1. Oiongo Udalak Espainiako Gobernuari eskatzen dio behin betiko eramateko Euskal Autonomia Erkidegora Gernikak 1937ko apirilaren 26an jasandako bonbardaketa basatia salatzeke Pablo Ruiz Picassok margotu zuen *Guernica* koadroa.
2. Oiongo Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio *Guernica* koadroa non jar daitekeen aztertzeke; lehenbizi eta lehentasunez, Gernikan jartzea aztertzea eskatzen dio.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea

5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.

5.1 Eh Bildu Oion taldearen mozioa gizarte-zerbitzuen diagnostikoari buruz.

Villanueva jaunak EhBildu Oion taldearen mozioa irakurri du gizarte-zerbitzuen diagnostikoari buruz.

Gamarra López Brea jauna: Barkatu ez dudalako zerbitzuen egoera aztertzerik izan, baina ulertzen dut gizarte-zerbitzuak funtsezkoak direla eta mozioa babestuko dudala.

Alkate jauna: Batzordeetan aipatu genuen moduan, mozio hau Batzar Orokorretan PP taldeak eginiko mozio bat da, Bilduk zuzenketa aurkeztu ziona...

Mozioa martxoan aurkeztu zen, baina gobernu-talde honek 2016ko azaroaz geroztik gutxienez adierazi du Gizarte Zerbitzuen Sailagatik kezkatuta eta haserre dagoela, eta Arabako Errioxako Kuadrillaren bitartez ere adierazi du. Alkate honek, gainera, behin baino gehiagotan adierazi dio Gizarte Ongizatea Saileko zuzendariari. Jakinarazi digute mapa 2017ko otsailerako egongo zela prest, eta gero, 2017ko martxorako. Espero dugu apirilaren amaierarako aurkeztea.

Villanueva Gutiérrez jauna: Eskerrik asko alderdi sozialistari, babesagatik. Foru Aldundiaren lanaren emaitzen buruzko zalantza agertu nahi dut. Gogoan izan Foru Aldundiak hamar urte daramatzala Arabako gizarte-zerbitzuen mapa egiten. Gizarte Zerbitzuen Euskal Legeak ezartzen du oinarritzko gizarte-zerbitzuak udalen eskumenekoak

direla, baina ez du aintzat hartzen Araban, Gasteizek izan ezik, udalerriek ez dituztela bitartekorik. Foru Aldundiak behingoz bere lana egin dezala eskatzen dugu.

Nolanahi ere, EhBildu egin du azterketa bat; hona hemen. Foru Aldundiak gizarte-txekearen formularekin funtzionatzen du, hitzartutako zentroetara ia bederatziehun erabiltzaile bideratzeko, artatu ezin dituenak, eta horiek hartzen dituzten hitzartutako egoitzek ez dituzte betetzen egoitzetarako foru-arauak. Foru Aldundia martxan jarraiazi behar da. Eta gure taldeak mozioak aurkeztu ditu egokitutako jotako ekimenekin, PNV-EAJk egiten duen moduan gure mozioei zuzenketa sistematikoak aurkeztuz...

Villanueva Gutiérrez jauna: Foru Aldundiak gizarte-zerbitzuen % 80 ordaindu behar du eta ez ditu ordaintzen Kuadrillaren bitartez ordaintzen diren errefortzuak. Ez dakit zer gertatzen den Kuadrillan; osoko bilkurak 13:00etan jartzen dituzte, eta ezin dut joan, lan egiten dudalako.

Villanueva Gutiérrez jauna: Uste dut Foru Aldundiari pilak jarraiazi behar zaizkiola. Adibidez: 2016ko ekainean, mila eta seiehun sinadura inguru aurkeztu ziren mamografiatarako arretari buruzko azterketa bat egiteko. Eusko Jaurlaritzak ikerketa bat egin behar zuen lau hilean. Non dago?

Alkate jauna: Zein da EhBilduren mozioaren erabilgarritasuna? Domina bat zintzilikatu nahi duzue? Ez dugu mozioa atzera bota nahi; horregatik, iragartzen dut abstenitu egingo garela, gu ez gaitzean izan mozioak aurrera ez jarraitzearen arrazoia. Baina gobernu-talde honek eta Kuadrillak bost hilabete daramatzagu eskaerak egiten eta gogoan izan duela bi hilabete luzapena bozkatu genuela.

Villanueva Gutiérrez jauna: Ni ez naiz zinegotzia dominak zintzilikatzeko. Mozioak ez ditu baliabide gehiago eskatzen; beharrezkoak diren baliabideak ezagutzea eskatzen du...

Eh Bildu Oion taldearen mozioa bozkatu da gizarte-zerbitzuen diagnostikoari buruz.

Aldeko botoak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Abstentzioak: 4 (lau); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

Eh Bildu Oion taldearen mozioa transkribatu da gizarte-zerbitzuen diagnostikoari buruz.

Landa-eremuko oinarritzko gizarte-zerbitzuak Arabako Foru Aldundiak kofinantzatzen ditu. Gizarte Zerbitzuen zorroarekin bat etorrita, udal-eskumena da, nahiz eta bi urteko behin-behineko aldian, egungo egoerari eutsiko zaion. Zerbitzu oso garrantzitsua da herritarrentzat, gizarte-zerbitzuen sistemara sartzeko atea baita. Azken asteotan, arretan eta lurralde historikoko landa-eremuko udalerri batzuetan lehenengo hitzorduak emateko atzerapen handiak daudela jakin dugu. Horregatik guztiagatik, Eh Bildu Oion taldeak honako mozio hau proposatzen du, osoko bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko:

1. Oiongo Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio aurkeztu dezala, bi hilabeteko epean, Arabako landa-eremuko oinarritzko

gizarte-zerbitzuen 2016ko egoerari buruzko azterlan-diagnostiko bat. Erreferentziazat hartuko ditu, besteak beste, ondorengo datuak, oinarritzko gizarte-langilearen arabera.

- a. Gizarte-langile bakoitzaren biztanle-ratioa.
 - b. Gizarte-langile bakoitzak izapidetutako espedienteak.
 - c. Gizarte-langile bakoitzari esleitutako udalak.
 - d. Udal bakoitzeko biztanleen batez besteko adina eta egoera sozioekonomikoa.
2. Oiongo Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio finantzatu dezala gutxienez oinarritzko gizarte-zerbitzuen kostuaren ehuneko 80, baita zerbitzu hori osatzeko beharrezkotzat jotzen den langileen errefortzua ere.
 3. Oiongo Udalak Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio azkartu ditzala behar den estaldura juridikoa berregituratzeko eta ezartzeko egiteke dauden lanak, Arabako Foru Aldundiak udal-eskumenekoak diren eta bi aldeek adosten dituzten oinarritzko gizarte-zerbitzuak eman eta finantzatu ditzan (ELZ da horren kasu argia).

Azken puntua) Eskaerak eta galderak.

Villanueva Gutiérrez jauna: Hobetu egin da kirol-instalazio batzuetako aldageletako garbiketa.

Villanueva Gutiérrez jauna: Autokarabanetarako eremua sustatzea beharrezkoa da...

Villanueva Gutiérrez jauna: Nor arduratuko da txartelak jasotzeaz eta emateaz barraskilo-janean?

Zertara bideratuko da zinegotziak ez bertaratzeagatik taldeei kendutako zenbatekoa?

Alkate jauna: Oraindik ez dugu erabaki deskontatutakoa GKE bati emango zaionik.

Jorratzeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:35ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oionen, 2017ko apirilaren 27an.

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE